- Bereziki, interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatzeko neurriak hartuko dituzte, izapidetzen diren espedienteetan beharrezko txosten edo erantzukizunpeko adierazpenak barne, dagokionaren arabera, eta interes-gatazkak erregulatzen dituen araudia aplikatuko dute, antzeman bezala.

- Prozeduraren batean interes-gatazka eragin dezakeen kausaren batean dauden agintariek eta langileek ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Nor edo nork uste badu interes-gatazkarik egon daitekeela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Nolanahi ere, HFP/55/2023 Aginduan ezarritako kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia errespetatu beharko da.



- Kontu-hartzaitzak berriazko auditoretzak egin ahal dituela interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden egiaztatzeko, eta horien emaitzen berri eman beharko dio berriaz Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, Eusko Jaurlaritzak berak edo hark izendatutako erakundeak egiten dituen berriazko ikuskapenak alde batera utzi gabe.

- Interes-gatazka antzeman ondoren, neurri egokiak berehala hartuko direla, kasuan aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-arauen arabera.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Ildo horretan, hori betetzeko, pertsona bakarreko kontratazio-organoak eta kide anitzeko kontratazio-organoko kideek, bai eta kontratazio-organolari laguntzeko kide anitzeko organoko kideek ere, baldin eta kontratazio-prozeduretan parte hartzen badute eskaintzak baloratzeko faseetan, kontratua esleitzeko eta esleitzeko proposamenetan, eta kontratazio-prozeduretan parte hartzen duten gainerako partaideek elektronikoki sinatu beharko dute agindu hori arautzen duen interes-gatazka ezaren adierazpena (IGEA), hitzarmen honi H eranskin gisa erantsi zaiona.

Eragiketaren arduradunak balizko interes-gatazka egiaztatzeko prozesua egin beharko du, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozesu horretatik bandera beltz bat edo gehiago detektatu badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu beharko diote.

Horretarako, eskatzaileei beren benetako titulartasunari buruzko informazioa aurkezteko eskatu beharko diete 5 egun balioduneko epean, eta ezarritako epean entregatu ezean, prozeduratik kanpo geratuko dira.

c) Proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko eta jarraipena egiteko jarduketan mende jartzea, dokumentuak egiaztatuz, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren etengabeko eta amaierako ebaluazioaren mende jartzea, baita kontrol finantzarioaren mende ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Kontuen Auzitegiaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsak kontrolatu eta horren jarraipena egiteko agindu zaien estatu-mailako zein Europako organoen kontrol finantzarioaren mende, bereziki Europako Batzordea, Europako Kontuen Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF) eta Europako Fiskaltza, zeinek egindako jarduketan informazio xehera sarbidea izan ahalko baitute.

d) Hitzarmen honen esparruan egingo diren jarduketa guztien kudeaketa, egikaritze eta kontrolari buruz behar den informazio oro **Turismo, Merkataritza eta kontsumo Sailera** igortzeko konpromisoa hartu dute.

e) Erakunde betearazleak, HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan adierazitakoa egingo du, funtsen azken hartzailea, laguntzen erakunde onuradunak, kontratistak eta azpikontratatistak identifikatzeari eta informazio hori emateari dagokionez.

Zehazki, aurreikusi beharko da funtsen azken hartzaileek onartu egingo dutela inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea, Europako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko, bat etorritik Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearekin, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren IV.B eranskinean ezarritako ereduari jarraituz.

Erakunde onuradunak kontratistak eta azpikontratatistak identifikatu beharko ditu; hala, lizitazio-prozeduretan honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- Kontratistaren edo azpikontratisten IFZ.
- Izena edo izen soziala.



- *Kontratataren eta, hala badagokio, azpikontratatisten zerga-egoitza.*
- *Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritz Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege organikoarekin (I. eranskina B eredua).*
- *BEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote (I. eranskina C eredua)*

Kontratatistek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioko errolda baliokidean; lizitazio-prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

f) Hitzarmen honen esparruan garatutako jarduketan auditoria-bide egokia mantentzea, eta oinarridokumentazioa gordetzeko betebeharra. Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak eta HFP/1030/2021 Aginduak ezarritako inguruabarretan emango da.

g) Jasotakok funtsen aplikazioa justifikatzen duten jatorrizko agiriak zaintzea eta gordetzea, egiaztatuak eta ikuskatuak izan daitezkeen bitartean, behintzat.

h) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, EURATOM) Erregelamenduaren 132. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, justifikazio-dokumentuak, datu estatistikoak eta finantzaketa buruzko gainerako dokumentuak gorde beharko dituzte, bai eta erregistroak eta dokumentuak ere, formatu elektronikoan, saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketa hori egin ezean, eragiketa egiten denetik bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada.

Auditoretzei, errekursoei, auziei, konpromiso juridikoei buruzko erreklamazioen izapidetzeari edo lruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) ikerketei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira harik eta auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek jasotzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra.

Erregistroak eta dokumentuak jatorrizkoak edo jatorrizkoen kopia konpultsatuak izango dira, edo oro har onartutako datu-euskarrietan gordetzen direnak; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan bakarrik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez da jatorrizko dokumenturik beharko, baldin eta dokumentu horiek aplikagarri diren lege-baldintzak betetzen badituzte, jatorrizko dokumentuen baliokidetzat eta auditoretzaren ondorioetarako fidagarritzat jo ahal izateko.

i) Erakunde onuradunak jarduera egiteko behar den enplegu guztia Espainian sortzeko betebeharra izango du; langileak kontratatuz eta Gizarte Segurantzara afiliatuz egin beharko da. Eskakizun hori betetzea agiri bidez justifikatu beharko da.

j) Erakunde onuradunak bete egin beharko du estatuko dirulaguntzen araubidearekin bateragarri izateari buruzko estatuko eta Europako araudia, eta finantzaketa bikoitza saihesteari buruzkoa, bat etorritz irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduko 7. artikuluan aurreikusitakoarekin.

k) Publizitate, ezagutarazpen eta komunikazioko betebeharrak betetzea, bat etorritz irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulurekin.



l) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du SEMeko funtsekin finantzaturako jarduketan datuak eta informazioa jasotzeko kasuan kasuko epeetan eta administrazio eskudunak horretarako ezarriko duen aplikazioan.

2. «Kalte adierazgarriak ez egiteko» printzipioa aplikatuz («do no significant harm-DNSH»), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak eta Suspertze Planak aurreikusitakoarekin bat etorriz, ingurumen-legedi aplikagarria errespetatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamendua barne (inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzekoa), baita Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01) ere, «kalte adierazgarriak ez egiteko» printzipioa aplikatzeari buruzkoa. Ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatu egingo dira, aplikagarriak direnean, indarrean dagoen legediarekin bat etorriz, baita ingurumen-legedia dela bide aplikagarriak izan daitezkeen bestelako ondorioen beste ebaluazio batzuk ere.

DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatu behar da, DNSH printzipiora egokitzearen inguruko aldeko ebaluazio baten bidez edo, hala badagokio, hura betetzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpen edo autoebaluazio baten bidez. Erakunde onuradunek, beti ere, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa (DNSH) betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta printzipio horren ezarpena ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horien berri emango dute.

Nolanahi ere, Kontseiluaren Betearazpen Erabakian ezarritakoa betez, HTJPN jasotako neurriak DNSH printzipioa aplikatzeko gida teknikora egokitzen direla bermatze aldera, proiektuen hurrengo deialdietako dirulaguntzen baldintza-agirietan ezarritako irizpideek jarduera hauek kanpo utziko dituzte: i) erregai fosilekin lotutako jarduerak, gerorako erabilera barne; ii) EBko emisio-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, sortuko dituzten berotegi-efektuko gasen emisioak ez badira kasuan kasuko erreferentziako parametroetatik beherakoak; iii) hondakinen zabortegekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak; eta iv) hondakinak epe luzera suntsitzeko jarduerak, ingurumenari kalte egin ahal diotenean. Baldintza agiriak, gainera, eskatuko du estatuko eta EBko ingurumen-legedia betetzen dituzten jarduerak soilik aukeratu ahal izango direla.

3. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa arautzen duen gainerako araudia eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Espainiako gobernua horren inguruan onar ditzaketan araudietan ezarritakoa, baita Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren inguruan Batasunak emango dituen xedapenak ere

4.- ERAKUNDE BETEARAZLEAREN BETEBEHARRAK – UDALA/ALDUNDIA

4.1 CoFFEE sisteman eta administrazio eskudunak horretarako ezar ditzakeen beste sistema batzuetan jarraipeneko informazioa bideratzea, **garaiz eta behar bezala, eta azpiproiektuaren kudeaketaren emaitzez arduratzea, nahitaezko kudeaketa-txostena sinatuz.**

4.2 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokionez Europar Batasuneko xedapenen mende jartzeko betebeharra.

1. Oro har, erakunde betearazleak honako betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Planak amaitzeari buruzko 220 eta Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Planak amaitzeari buruzko 221 mugariak betetzen laguntzea.
- b) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzea, detektatzea, jakinaraztea, zuzentzea eta horien arriskuaren ebaluazioa egitea eta Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea eta interes-gatazka horiei heltzeko prozedura bat eskura



izatea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan, bat etorri irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko betebeharrekin, eta HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Horren haritik, tokiko erakundeak Eusko Jaurlaritzaren «Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzean iruzurraren aurkako, interes-gatazketarako, finantzaketa bikoitzeko, estatu-laguntzetako eta ingurumenari kalte adierazgarririk ez egiteari buruzko eskakizunak betetzeko neurrien plana» aplikatu beharko du; plan horren 2.2 artikulua ezartzen duenez, «plana aplikagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, foru-aldundietan eta administrazio orokorrean, eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeetan, baita horiei lotutako organismo publikoetan eta zuzenbide publikoko erakundeetan ere, SEMetik eratorritako funtsak kudeatu edo egikaritzen diren neurrian». Aurreikuspen horiek berak aplikatuko zaizkie zuzenbide pribatuko erakundeetara Turismoaren Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Akordioaren esparruan, STEPearen aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren ildotik, SEMetik datozen funtsak kudeatzen edo gauzatzen dituzten neurrian.

Plan horri esker bermatu eta adierazi daiteke, kasuan kasuko jardun-esparruan, funtsak arau aplikagarriekin bat etorri erabili direla kasuan-kasuan, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interesgatazka saihestu, antzeman eta zuzentzeko.

Erakunde Betearazleak honako hauek bermatuko ditu bereziki:

- Enpresa kontratistek, azpikontratistek edo hitzarmen honen ondoriozko laguntzen onuradunak hautatzeko prozesuan edo hitzarmenaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen dutenek deklaratu beharko dute «Iruzurraren aurkako neurrien plana»-ren baldintzak osorik eta zabal-zabal ezagutzen eta onartzen dituztela.
- Xede horietarako, pertsona horien artean honako hauek egongo dira: kontratua adjudikatzeko edo dirulaguntza emateko eskumena duen organoko arduraduna, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten duten langileak, eta eskaintzak edo eskabideak ebaluatzen dituzten adituak eta batzorde-kideak, bai eta lan horietan Administrazioari laguntzen eta aholkatzen dioten erakunde pribatuetako pertsona fisiko guztiak ere.
- Bereziki, interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatzeko neurriak hartuko dituzte, izapidetzen diren espedienteetan beharrezko txosten edo erantzukizunpeko adierazpenak barne, dagokionaren arabera, eta interes-gatazka erregulatzen dituen araudia aplikatuko dute, antzeman bezala gero.
- Prozeduraren batean interes-gatazka eragin dezakeen kausaren batean dauden agintariek eta langileek ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Nor edo nork uste badu interes-gatazkarik egon daitekeela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Nolanahi ere, HFP/55/2023 Aginduan ezarritako kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia errespetatu beharko da.
- Kontu-hartzailetzak berriazko auditoretzak egin ahal dituela interes-gatazka prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden egiaztatzeko, eta horien emaitzen berri eman beharko dio berriaz Eusko Jaurlaritzako Turismo,

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659fd8a5d9



Merkataritza eta Kontsumo Sailari, Eusko Jaurlaritzak berak edo hark izendatutako erakundeak egiten dituen berariazko ikuskapenak alde batera utzi gabe.

- *Interes-gatazka antzeman ondoren, neurri egokiak berehala hartuko direla, kasuan aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-arauen arabera.*

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

*lido horretan, hori betetzeko, pertsona bakarreko kontratazio-organoak eta kide anitzeko kontratazio-organoko kideek, bai eta kontratazio-organuari laguntzeko kide anitzeko organoko kideek ere, baldin eta kontratazio-prozeduretan parte hartzen badute eskaintzak baloratzeko faseetan, kontratua esleitzeko eta esleitzeko proposamenetan, eta kontratazio-prozeduretan parte hartzen duten gainerako partaideek elektronikoki sinatu beharko dute agindu hori arautzen duen interes-gatazka ezaren adierazpena (IGEA), hitzarmen honi **I.A eranskin** gisa erantsi zaiona.*

Eragiketaren arduradunak balizko interes-gatazka egiaztatzeko prozesua egin beharko du, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozesu horretatik bandera beltz bat edo gehiago detektatu badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu beharko diote.

Horretarako, eskatzaileei beren benetako titulartasunari buruzko informazioa aurkezteko eskatu beharko diete 5 egun balioduneko epean, eta ezarritako epean entregatu ezean, prozeduratik kanpo geratuko dira.

- c) Proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko eta jarraipena egiteko jarduketan mende jartzea, dokumentuak egiaztatuz, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren etengabeko eta amaierako ebaluazioaren mende jartzea, baita kontrol finantzarioaren mende ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Kontuen Auzitegiaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsak kontrolatu eta horren jarraipena egiteko agindu zaien estatu-mailako zein Europako organoen kontrol finantzarioaren mende, bereziki Europako Batzordea, Europako Kontuen Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF) eta Europako Fiskaltza, zeinek egindako jarduketan informazio xehera sarbidea izan ahalko baitute.*
- d) Hitzarmen honen esparruan egingo diren jarduketa guztien kudeaketa, egikaritze eta kontrolari buruz behar den informazio oro **Tolosaldea Garatzen S.A.ri** igortzeko konpromisoa hartu dute.*
- e) Erakunde betearazleak HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan artikuluan adierazitakoa egingo du, funtsen azken hartzailea, laguntzen erakunde onuradunak, kontratistak eta azpikontratatistak identifikatzeari eta informazio hori emateari dagokionez.*

Zehazki, aurreikusi beharko da funtsen azken hartzaileek onartu egingo dutela inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea, Europako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko, bat etorritz datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearekin, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren IV.B eranskinean ezarritako ereduari jarraituz.

- f) Hitzarmen honen esparruan garatutako jarduketan auditoria-bide egokia mantentzea, eta oinarri-dokumentazioa gordetzeko betebeharra. Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak eta HFP/1030/2021 Aginduak ezarritako inguruabarretan emango da.*



- g) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, EURATOM) Erregelamenduaren 132. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, justifikazio-dokumentuak, datu estatistikoak eta finantzaketari buruzko gainerako dokumentuak gorde beharko dituzte, bai eta erregistroak eta dokumentuak ere, formatu elektronikoan, saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketa hori egin ezean, eragiketa egiten denetik bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada.

Auditorretzei, errekursoei, auziei, konpromiso juridikoei buruzko erreklamazioen izapidetzeari edo luzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) ikerketei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira harik eta auditorretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek jasotzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra.

Erregistroak eta dokumentuak jatorrizkoak edo jatorrizkoen kopia konpultsatuak izango dira, edo oro har onartutako datu-euskarrietan gordetzen direnak; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan bakarrik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez da jatorrizko dokumenturik beharko, baldin eta dokumentu horiek aplikagarri diren lege-baldintzak betetzen badituzte, jatorrizko dokumentuen baliokidetzat eta auditorretzaren ondorioetarako fidagarritzat jo ahal izateko.

- h) Erakunde betearazleak bete egin beharko du estatuko dirulaguntzen araubidearekin bateragarri izateari buruzko estatuko eta Europako araudia, eta finantzaketa bikoitza saihesteari buruzkoa, bat etorritik irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduko 7. artikuluan aurreikusitakoarekin
- i) Publizitate, jakinarazpen eta komunikazioko betebeharrak betetzea, bat etorritik irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. Artikulurekin.
- j) Erakunde betearazleak konpromisoa hartzen du SEMeko funtsekin finantzatutako jarduketan datuak eta informazioa jasotzeko kasuan kasuko epeetan eta administrazio eskudunak horretarako ezarriko duen aplikazioan.

2.- "Kalte esanguratsurik ez eragiteko" printzipioa aplikatuz ("do no significant harm-DNSH" printzipioa), Berreskuratze Planean eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan aurreikusitakoarekin bat etorritik, aplikatu beharreko ingurumen araudia errespetatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluan 2020/852 (EB) Erregelamendua barne, 2020ko ekainaren 18koa, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa da 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, bai eta Europako Batzordearen gida tekniko ere (2021/C 58/01), "Kalte nabarmenik ez eragiteko" printzipio hori aplikatzeari buruzkoa. Indarrean dagoen legeriaren arabera aplikatzekoak direnean, ingurumen ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, bai eta ingurumen legeriaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen beste eragin ebaluazio batzuk ere. DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatu behar da, DNSH printzipiora egokitzearen inguruko aldeko ebaluazio baten bidez edo, hala badagokio, hura betetzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpen edo autoebaluazio baten bidez. Erakunde betearazleek, beti ere, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa (DNSH) betetzen dela egiaztatzen mekanismoak eta printzipio horren ezarpena ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horien berri emango dute.

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659fd8a5d9



3.- *Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa erregulatzen duten gainerako arauak, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Espainiako Gobernuak horri buruz onartzen duten araudian xedatutakoak, bai eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erkidegoko xedapenek ere.*

5.- JARRAIPEN-BATZORDEA

1. *Hitzarmen hau betetzean, aplikazioan eta interpretazioan sortu daitezkeen auziak ebazteko eta kontrolatzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera geratuko da eratuta jarraipen-batzordea, eta batzordearen funtzionamendurako barne-arauak emango ditu; alderdietako batek eskatzen duen aldiro batu beharko da batzordea, eta, gutxienez, urtean hiru aldiz.*

2. *Hitzarmen honetan aurreikusten denaren arabera jardungo du batzordeak, eta, modu osagarrian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen lehenengo tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean xedatzen denaren arabera.*

3. *Batzordea paritariora izango da, eta honako hauek batzordeko kideak:*

- **Tolosaldea Garatzen S.A.** erakunde onuraduneko lehendakariak izendatutako bi kide:

- Gerentziaren titularra.
- **HJTP kudeatzeaz arduratuko den erreferentziako teknikaria.**

Presidenteak horretarako izendatzen duen pertsonari eskuordetu ahal izango dio bere ordezkaritza.

- Toki-erakundearen aldetik: Tolosako Udaleko Alkateak- Udalburuak izendatutako bi kide:

- Alkateak edo berak izendaturiko zinegotzi delegatua.
- Udal Idazkaritzako titularra

4. *Hitzarmen hau egikaritzean, interpretazioan eta aplikazioan sor litezkeen auzi guztiak zaindu, kontrolatu, ebatzi eta jarraipena egitea izango dira Jarraipen Batzordeari emandako eginkizunak.*

6.- DATUEN BABESA

Alderdi sinatzaileak behartuta daude, datuen babesari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzera; 2016/679 Erregelamendua datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio librean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorren 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du; abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, berriz, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa da.

*Erreferentziako proiektua amaitu ondoren ere, betebeharrak indarrean jarraituko dute. Hitzarmen honetan, **Tolosaldea Garatzen S.A.** Erakunde onuraduna izango da tratamenduaren arduraduna, aipatutako araudian ezarritako baldintzetan eta bertan ezarritako betebeharrak eta baldintzei jarraikiz.*

7.- AZKENTZEA ETA SUNTSIARAZTEA

1.- *Hitzarmenaren xede diren jarduketak bete direlako edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoelako azkenduko da.*



2.- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak hauek izango dira:

- a) Ezarritako indarraldia amaitzea.
- b) Sinatzaile guztiak aho batez ados jartzea.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Halakoetan, beste alderdiak errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, hilabeteko epean bete ditzan bete gabekotzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko dio badagoela hitzarmena suntsitzeko arrazoa, eta hitzarmena suntsitua dagoela ulertuko da.

- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizial batengatik.
- e) Araudian jasotako aurrekoen bestelako edozein arrazoiengatik.

3.- Hala ere, hitzarmena suntsiarazteko edozein kausa jazotzen den unean jarduketaren bat abian bada, alderdiek, hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak hala proposatuta, hitzarmenarekin jarraitzea adostu ahalko dute alderdiek, harik eta jarduketa bukatu, justifikatu eta bertan jasotako klausulen arabera likidatu arte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

8.- INDARRALDIA

1.- Hitzarmen honen indarraldia 2026eko martxoaren 31an amaituko da.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea (2026ko martxoaren 31ko gehieneko mugarekin, CIDren 221 mugarrak adierazten duen bezala) edo hura azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.- ESKUMENEN JURISDIKZIOA

Hitzarmena administratiboa denez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak ebatziko ditu hitzarmen honen garapenean sortzen diren auzi-kontuak, bat etorrita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.m artikuluko aurreikuspenekin.

Eta, ados daudela erakusteko, hitzarmena sinatzen dute bi alderdiek.

Tolosaldea Garatzen S.A.ko lehendakariordea Tolosako Udalaren Alkatea

Alaitz Labaien Tolosa

Angel Martinez de Rituerto Arregui



I. ERANSKINA

Adierazpen-ereduak

- A. Interes-gatazkarik eza
- B. Datuen lagapena eta tratamendua
- C. Zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoa
- D. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea (DNSH printzipioa)
- E. Iruzuraren aurkako politikari atxikipena eta honen ezagutza
- F. Benetako titulartasuna
- G. Finantzaketa bikoitzik ez izatea
- H. Interes-gatazkari buruzko eranskinak (HFP/55/2023 Agindua, 2023ko urtarrilaren 24koa)

A. Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpenaren eredia (IGEA)

Dirulaguntza.

Lehenago aipatutako dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, honako hau adierazi nahi du/dute:

Lehena. Hauek ezagutzen dituela:

1. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».*

2. *Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerak guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.*

3. *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:*

a) *Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*

b) *Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa,*



interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun mina edo etsaitasun agerikoa izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.

e) Gaiari zerikusituz zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Ez dagoela EBren Finantza-Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta emakida/lizitazio-prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena. Interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro ebaluazio-batzordeari/kontratazio-organoari luzapenik gabe jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Laugarrena. Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudan agiria faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)



B. Datuen tratamendu eta lagapenerako adierazpenaren eredia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak betetzeari dagokionez

Ni, jauna/andrea (NAN:),
..... erakundearen (IFZ:);
egoitza fiskala:) kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea BEEPeko baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista modura parte hartzen du «Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana» 14. osagaien definitutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut araudi aplikagarria ezagutzen dudala, bereziki Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko 22. artikulua apartatu hauek:

1. 2. apartatuko d) letra: «Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurriei dagozkien funtsen erabilera kontrolatu eta auditoretza egiteko, bilaketak egitea ahalbidetzen duen euskarri elektronikoko batean eta datu-base bakarrean biltzea datu kategoria harmonizatu hauek:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailerik bat denean, estatu-mailako edo Batasuneko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorritik;

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratataren titular errealeko izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 Zuzentarauaren (EB) 3. artikuluko 6. Puntuari jarraikiz (26):

iv. Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurrien zerrenda bat, neurrien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa adierazita, eta mekanismoaren esparruan eta Batasunaren beste funts batzuetatik ordaindutako funtsen zenbatekoa adieraziz».

2. 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak Batzordeak eta estatu kideek soilik erabiliko dituzte, 15. artikuluko 2. apartatuak eta 23.eko 1. apartatuak aipatutako akordioak aplikatzeari lotutako funtsen erabileraren kontrol-prozedurei eta aurrekontu-kudeaketa onartzeari buruzko auditoria egiteko eta horretarako behar den denboran. Batzordeak kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, bat etorritik EBFTren 319. artikuluekin, mekanismoa txostenak aurkeztearen (finantza-informazioaren esparruan) eta kontuak modu integratuan ematearen mende egongo da (Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua), eta, bereziki eta modu berezian, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoarekin bat etorritik, adierazi du datuen lagapena eta tratamendua onartzen dituela, berriaz aipatutako artikuluetan zerrendatutako helburuekin.

....., 202X(e)ko(a)ren ... (a)

Sin.

Kargua:



C. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak egikaritzeari dagokion konpromiso-adierazpenaren eredia

Ni, jauna/andrea (NAN:.....),
..... erakundearen (IFZ:.....;
egoitza fiskala:.....) organoaren titularra/kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea BEEPeko baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista/mandatuaren hartzaile modura parte hartzen du «Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana» 14. osagaien definitutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut ordezkaritza naizen pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralen estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa duela, eta hark behar diren neurriak hartu dituela iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko eta antzemateko, eta ez-betetzeak, halakorik balego, kasuan kasuko agintariei jakinaraztekoa.

Horrez gain, BEEPen edukiari erreparatuz, plan horren esparruan garatutako jarduketak betetzean ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko («DNSH» ingeleseko siglak, «do no significant harm») eta ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, eta adierazten du, orobat, ez duela finantzaketa bikoitzik eta ez duela estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arrisku ezagunik.

....., 202X(e)ko(a)ren ... (a)

Sin.

Kargua:



D. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa)

Ni, (NANA:.....),
..... erakundearen (IFZ:
.....; egoitza fiskala:
.....)

kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea BEEPeko baliabideekin finantzaturako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista modura parte hartzen du «.....» XX. osagaian zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, honako hauek adierazten ditut

Lehen. Aurkeztutako eskaintzak baldintza hauek betetzen ditu:

1. Bertan gauzatzen diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema bat (edo «taxonomia») ezarriz inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberako:

- a) Klima-aldaketa arintzea.
- b) Klima-aldaketara egokitzea.
- c) Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasangarritasunez erabiltzea eta babestea.
- d) Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- e) Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- f) Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

2. Jarduerak, hala badagokio, Osagaia neurtzeko eta azpiproiektua egiteko ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatzen dira.

3. Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzekoa den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.

4. Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta Planaren bitartez finantzatzeko aukeratik, honako printzipio hau aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera: «Kalte nabarmenik ez eragitea», Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.

5. Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondoriorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera amaitu ondoren gauzatu daitezkeenak.

Bigarrena. Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

....., 202X(e)koaren ...(a)

Sin.:

Kargua:

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659fd8a5d9



E. Iruzuraren aurkako politikari atxikitze eta hura ezagutzeko erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo _____
erakundea (IFK: _____) ordezkatzuz,

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Iruzuraren aurkako neurrien plan propioa dute, bat datorrena Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoarekin, Esku-hartze Orokorren eta Zerbitzu Juridikoen Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoen arloko gomendioekin eta erakunde publikoetan baliokideak diren kontrol-organoekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

BIGARRENA.- Halakorik ezean, eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian xedatutakoaren bat etorriz, Eusko Jaurlaritzaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien planari atxikitzen zaio. Plan hori 2022ko martxoaren 29an onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

HIRUGARRENA. - Iruzuraren aurkako politikaren edukia ezagutzen du, bai eta horretarako ezartzen diren betebeharrak ere, eta ahalik eta publizitaterik handiena emateko konpromisoa hartzen du.

LAUGARRENA. - _____ jauna/andrea Eusko Jaurlaritzarekin iruzurraren aurka borrokatzeko solaskide izendatzen du.

_____ (e)n, 20 ____ (e)ko _____ ren _____ (e)an

Sin.:

Kargua:



F. Benetako titulartasunaren erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

_____ jaunak/andreak (NAN: _____), _____
erakundearen titular/ordezkeri den aldetik (IFZ: _____; zerga-egoitza:
_____), BEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik, (deialdiaren
izena) _____ izeneko jardueraren esparruan

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA. – Ezagutzen du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko. Horren arabera, funtsen azken hartzailearen identifikazioari dagokion informazioa eman behar da:

- Funtsen hartzailearen izen-abizenak,
 - Benetako titularren jaioteguna, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan egiten den titular errealearen definizioari jarraikiz.
- BIGARRENA.** – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera, honako hauek direla benetako titularrak (hau da, azken buruan jabetza edo bezeroaren kontrola duten pertsona fisikoak edo transakzio edo jardura² baten ardura duten pertsona fisikoak):

BENETAKO TITULARTASUNA				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ/ PASAPORTE A	Nazionalitatea edo egoitza soziala	Jaiotze-data	Partaidetza (%)

HIRUGARRENA. – Badaki ezen, eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako erakunde betearazleari entregatu beharko diola benetako titularra/titularrak egiaztatzen d(it)uen notario-aktaren kopia, azken esleipenduna edo hartzailea merkataritza-sozietate bat bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

_____ (e)n, 20____(e)ko _____ren _____(e)an

Sin.:

Kargua:

2 Pertsona juridikoaren kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuaren arabera, gutxienez honako hauek hartuko dira kontuan:

- (i) <<Azken buruan pertsona juridiko baten jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak, entitate horretan akzioen, boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen ehuneko nahikoaren zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez (eramailearentzako akzio-zorroak barne) edo beste bitarteko batzuen bidez, merkatu arautu batean kotizatzen duten eta Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-betekizunen edo jabetzaren gaineko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak izan ezik.

Zuzeneko jabetzaren zantzua izango da pertsona fisiko batek kapital sozialean % 25eko partaidetza gehi akzio bat edo bezeroarengan % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea. Zeharkako jabetzaren zantzua izango da pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean (edo sozietate batzuen kontrolpean, baldin eta horiek pertsona fisiko beraren edo berberen kontrolpean badaude) dagoen % 25eko gehi akzio bateko partaidetza izatea kapital sozialean, edo % 25etik gorako jabetza-eskubide bat bezeroarengan. Estatu kideek ehuneko bikiagoa jabetzaren edo kontrolaren zantzu izan daitekeela erabakitzeko duten eskubideari kalterik egin gabe aplikatuko da aurreko hori. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrola» badela zehaztu ahal izango da, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1. paragrafitik 5.era bitartekoetan ezarritako irizpideen arabera.

Izan daitezkeen bitarteko guztiak agortu ondoren, eta betiere susmo-arrazoirik ez badago, i) tartekiaren arabera inor identifikatzen ez bada, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak benetako titularrak edo goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duten pertsona fisikoak diren zalantzak badaude, behartutako erakundeek i) tartekiaren eta tarteki honen arabera benetako titulartasuna nork duen identifikatzeko hartutako neurrien erregistroak gordeko dituzte;



G. Finantzaketa bikoitzik ez duela adierazteko erantzukizunpeko adierazpenaren eredia _____ jaunak/andreak (NAN: _____),
 _____ erakundearen titular/ordezkarari den aldetik (IFZ: _____); zerga-egoitza: _____),
 BEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik (deialdiaren izena) _____ izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean aitortzen du:

Ez duela jaso Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM) ezartzen duena) ez den Europar Batasuneko beste edozein funtsaren laguntzarik, eta ez dela aurkeztuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik eratorritako aurrekontua duen etorkizuneko beste edozein funtsaren finantzaketarako.

Jarraitu soilik aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada; hau da, proiektuak beste funts baten finantzaketa jaso badu edo etorkizunean jasotzea aurreikusten bada helburu bererako:

- Laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen duela.
- Gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen duela, finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Proiektuaren finantzaketa trazarabiltate bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena daudela.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko justifikazio-agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.
- Honako datu hauek identifikatzen direla:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: Xede berberarekin beste administrazio edo erakunde publiko bati emandako edo eskatutako laguntzak eta dirulaguntzak			
Administrazioa edo erakunde publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa, guztira: _____ €		Emandakoa, guztira: _____ €	

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ ren _____ (e)an

Sin.:
Kargua:

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659fd8a5d9



H. Interes-gatazkari buruzko eranskinak (HFP/55/2023 Agindua, 2023ko urtarrilaren 24koa)

I. ERANSKINA

Interes-gatazkarik Eza Adierazteko agiria (IGEA)

Espedientea:
Kontratazioa/dirulaguntza.
Izen-abizenak:
IFZ:
Kargua:

Goian aipatutako kontratazio-/dirulaguntza-prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak/dutenek, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte denez/direnez, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa.
Jakinak ditut honako hauek:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua ("Interes-gatazka") honakoa ezartzen du: «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesan politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin zuen, Espainiako ordenamendu juridikora egokitzeko. Bada Lege horren 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») honela definitzen du interes-gatazka: «Kontratazio-organoaren zerbitzura dauden langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean parte hartzen dutenek edo prozeduraren emaitzan eragina izan dezaketenek, zuzenean edo zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala izatea, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar dezakeena».
3. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».
4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:
 - o «Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, baldin eta aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa badago».
 - o «Erlazioak edo loturak identifikatzeko aldera, tresna horrek, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) .iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen benetako titulartasuneko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datu-baseetan daudenak, bai



eta notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatu dudan unean, eta eskura dudan informazioaren arabera, ez nago interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntzak lizitzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeenik.

Hirugarrena.

Konpromisoa hartu du/dute kontratazio-organoari/ ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, baldin egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoiren berri badaki/badakite, prozeduraren edozein unetan.

Laugarrena.

Badaki Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

Identifikazio eta sinadura (elektronikoa).

II. ERANSKINA

Interes-gatazkarik Eza egiaztatzeko eredia

Espedientea:

Kontratazioa/dirulaguntza.

Izen-abizenak:

IFZ:

Kargua:

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertu dugu (MINERVA tresna informatikoaren bidez), urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan, agindu horrek baititu araututa Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu. Agindu hori 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen. Bada, arriskua aztertu ondoren, bandera gorri bat detektatuenez (bandera gorriaren deskribapena, bandera hori jarrarazi duten eskatzaileen zerrenda), berriro diot ez nagoela prozeduran nire jarduketa objektiboa kolokan jar dezakeen interes-gatazka eragin dezakeen inongo egoeratan.



3. ONARTZEA ONDORENGO LANKIDETZA HITZARMENA "MAPA INTERAKTIBOA HERRITARREN BENETAKO, HAUTEMANDAKO ETA SORTZEN ARI DIREN BEHARRAK EZAGUTZEKO TRESNA GISA. HIRI BIRSORKUNTZA PROZESU INTEGRATU ETA ENDOGENOEN KUDEAKETA ERAGINKORRAREN OINARRIA (MI_RIU)"

I.-AURREKARIAK:

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearen 2023ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko Aginduan aurreikusitako laguntzen emakida ebatzi eta argitara eman zen, eta ebazpen horretan eman zitzaion laguntza, besteak beste, honako Proiektuari: *"Mapa interaktiboa herritarren benetako, hautemandako eta sortzen ari diren beharrak ezagutzeko tresna gisa. Hiri birsorkuntza prozesu integratu eta endogenoen kudeaketa eraginkorraren oinarria (MI_RIU)"*. Agindu horren bidez, 2022ko ekitaldirako dirulaguntzak emateko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezarri ziren, Bai+d+i programaren Euskadiko 2030erako «Hiri jasangarriak» aukera-nitxoaren helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

2021eko maiatzean Larraitz Bernedo Olano udal arkitektoak Tolosako Hirigune Historikoaren inguruko azterlana idatzi zuen: *"Tolosako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. Arazo nagusien deskribapena eta jarduteko irizpideen proposamena"*. Lan horretatik hainbat informazio azpimarratu nahi da jarraian:

Tolosako Hirigune Historikoa bizitegi-eremua da nagusiki eta etxebizitza dentsitate handia du; hektarea bakoitzeko 237,76 etxebizitzako dentsitatea. XIX. Mendean, "Tolosako eraikuntzak egiteko eta hobetzeko" plana ezarri zenean, eraikuntzen altuera igotzea ahalbidetu zen. Hasiera batean, eraikinek hiru solairu zituzten gehienez, eta plan horren ondoren eraikin askok altuera igo zuten, bost, sei eta zazpi solairu izatera iritsi arte. Honen ondorioz, Alde Zaharreko eskala eta dentsitatea okerrera eraldatu ziren.

Hirigune historikoko eremuan indarrean dagoen Plan Bereziko datuen arabera, guztira, 229 eraikin eta 1.700 etxebizitza inguru daude. Etxebizitzetako % 75 familia-etxebizitza nagusia da (1.281 familia). Hala, eraikinen erabilera nagusia etxebizitzarena izan arren, badaude garrantzi handiko bestelako ekipamendu publiko batzuk bertan: udaletxea, liburutegia, kultur etxea, haur-eskola... Bizitegi erabilerako eraikinen beheko oinetan merkataritza jarduerak gailentzen dira.

Hirigunea 1995. urtean Monumentu Maltzo deklaratu zenetik hainbat eraikinen berritze osoa eta ordezkapena egin da, batez ere, eraikin publikoetan eta Plaza Berriaren, Rondilla kalearen eta Barrena kalearen inguruetan. Azken hamarkadan, 2009ko Plan



Bereziak aurrekoarekiko sartutako berrikuntzek lagunduta eta eraikuntzen ikuskaritza teknikoko (EIT) txostenen eraginez, beste eraikin askoren eraberritzea ere egin da. Dena dela, badaude oraindik kontserbazio egoera txarrean dauden eraikinak eta are gehiago dira bizigarritasun, irisgarritasun eta eraginkortasun energetikoko baldintzak betetzen ez dituzten eraikin eta etxebizitzak.

Aurreko datu horiei gehitu behar zaie "Ikei" enpresak 2019. urtean egindako azterketan jasotako datuak. Azterketaren arabera, Alde Zaharrean 94 etxebizitza daude hutsik eta haietako 37 hainbat urtetan hutsik. Horrek eragin negatibo zuzena du eraikinen mantentze orokorrean, etxebizitzak erabiltzailerik gabe egoteak eraikinaren mantentze eza dakarrelako.

Ondare aldetik, Hirigune Historikoak garrantzi handia du, Monumentu Multzo eta Multzo arkeologiko izateaz gain, babes indibiduala duten eraikinen portzentajea altua baita. Alde Zaharrean dauden 229 eraikinetatik babestutako eraikinak 70 dira eta babestutako elementuren bat dutenak 53. Aurrekoaz gain, Tolosatik igarotzen den Monumentu Multzo izendatutako Donejakue bidea Hirigune Historikoko Kale Nagusitik igarotzen da, eta, horren ondorioz, bide eremua eta bideari lotutako zenbait eraikin babestuta daude.

Espazio libre publikoari dagokionez, berriz, eskasa da Erdi Aroko hiri sareetan izan ohi den bezala, baina urbanizazioa nahiko egoera onean dago Udalak azken hamarkadetan egindako lanei esker.

Lan honen helburua hirigune historikoa birgaitzeko plan berezian jarduteko proposamenak egitea zen. Hala, bizigarritasuna, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa bermatzeko helburuarekin hainbat aldaketa proposatzen dira, batetik, eta, bestetik, baita ondarreraren babesa indartzeko ere.

Bestalde, Alde Zaharreko bizilagunek ere, Plan Integrala bat lantzeko beharra ikusten dute eta horixe eskatu diete arduradun politikoei. Hala, Plan horretan lantzeko hainbat puntu zerrendatu zituzten: zenbait eremuren degradazioa eta erabilera eza, puntu beltzak, patioen erabilera eta herritarrei irekitzea, merkataritza, etxebizitza, eta ez bakarrik birgaitzea, mugikortasuna, etxeetarako eta obretarako dirulaguntzak, irisgarritasuna plana, peatonalizioak eta aparkalekuak, babes maila, efizientzia energetikoa eta etorkizuneko erronkak.

Guzti hau kontuan hartuta udalak Paisaje Transversal SLL-ri enpresa aditua kontratatu du Tolosako alde zaharreko hiri-berroneratze prozesua garatzeko laguntza teknikoa emateko.

Ikerketa honetatik lortuko diren datuak oso baliagarriak izan litezke Paisaje Transversal SLL enpresak egingo duen lanarekin batera. Tolosako Hirigune Historikoaren benetako hiri-berroneratze pro



II.-AZTERKETA TEKNIKO:

Aurrekarietan adierazi den moduan, udalak Tolosako alde zaharreko hiri-berroneratze prozesua abian jarri nahi du bertako bizilagunekin batera. Horretarako Paisaje Transversal SLL enpresa espezializatua kontratatu da. Ikerketa honetatik lortuko diren datuak oso baliagarriak izan litezke prozesu hau elikatzeko eta Tolosako Hirigune Historikoaren sakoneko hiri-berroneratzea gauzatu ahal izateko.

II.1. HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmenaren helburua da Tolosako Udalaren eta AH Asociados Grupo NORTE SLU, RB3 Innovación Integrada S.L. eta GISLAN Geographic Applications Koop elkartearen artean proiektua aplikatzeko baldintzak zehaztea.

II.2. PROIEKTUAREN HELBURUA


Proiektuaren helburua da azterketa-kasu zehatz batean opensource soluzio geoteknologiko bat diseinatzea eta esperimendatzea, mapa interaktibo erabilgarri bat egin ahal izateko, ingurune hiritar jakin batean bizi diren pertsonen benetako beharrak, hautemandakoak eta sortzen ari direnak jaso eta trukatzeko.

Behar georreferentziatuak, zeinak, datu objektibagarriekin gurutzatuta, hiriaren irakurketa ezezaguna eskaintzen duten, pertsonak beren bizitoki-espazioak nola bizi eta pairatzen dituzten ulertzeko aukera ematen dutenak, haien artean nola eta noiz mugitzen diren, zer arrazoi eta inplikazio sozioemotionalengatik mugitzen diren, beren beharrak erregistratzera iristeko, batez ere mugikortasunari, segurtasunaren pertzepzioari eta azpiegitura berdeei dagokienez.

Esperimentazio-prozesu hori eraginkorra izan dadin eta emaitzak baliagarriak izan daitezen, beharrezkoa da benetako aplikazio-ingurunearen hurbileko ezagutza eta erreferentziatzeko gizarte-sarearen inplikazioa izatea. Egoera horretan, toki-administrazioaren lankidetzak aktiboa estrategikoa da.

II.3. DEFINITUTAKO EREMUA

AH Asociados Arquitectos SLU, RB3 Innovación Urbana Integrada eta GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS KOOP ELK-ak osatutako TALDEAK aurkeztutako ikerketa-proiekturako aurkeztutako azterketa eremua nagusiki Tolosako Hirigune Historikoan oinarritzen da (Tolosako Udalerriko 1 barrutian):



II.4. LANA BURUTZEKO EPEA ETA KRONOGRAMA

Lanak 2024ko urrirako amaituta egon behar du. Honako kronograma xehetua proposatu dute:



PROIEKTUAREN KRONOGRAMA / CRONOGRAMA DEL PROYECTO

	abr-23	may-23	jun-23	jul-23	ago-23	sep-23	oct-23	nov-23	dic-23	ene-24	feb-24	mar-24	abr-24	may-24	jun-24	jul-24	ago-24	sep-24	oct-24	
PT1. Conocimiento previo e indicadores objetivables																				
T 1.1: Recopilación y análisis de bases de datos existentes a nivel de la CAPV																				
T 1.2: Diseño de un sistema de indicadores objetivables																				
T 1.3: Definición del modelo de representación gráfica de los datos objetivables																				
PT2. Sistema de indicadores socio-espaciales																				
T 2.1: Conocimiento y sistematización de patrones espacio temporales de uso																				
T 2.2: Sistematización conocimiento previo _sesiones internas de co-creación																				
T 2.3: Diseño del sistema de indicadores socio-espaciales																				
PT3. Selección y caracterización del caso de estudio preseleccionado																				
T 3.1: Selección caso de estudio específico dentro del término municipal de Tolosa																				
T 3.2: Caracterización del caso de estudio_sistema de indicadores objetivables y mapa de agentes de referencia																				
T 3.3: Diseño plan difusión de la app y trabajos previos para su puesta en marcha																				
PT4. Diseño y desarrollo de la solución geotecnológica																				
T 4.1: Análisis de situación de partida y definición de resultados finales esperados																				
T 4.2: Desarrollo del sistema																				
T 4.3: Validación y puesta en marcha del sistema o suite geotecnológica																				
PT5. Diseño y desarrollo de la interfaz pública del mapa interactivo																				
T 5.1: Recopilación referencias y buenas prácticas, análisis de criterios de usabilidad																				
T 5.2: Sesiones internas de co-creación y definición de criterios de usabilidad																				
T 5.3: Implementación y customización prototipo de la interfaz pública de la aplicación																				
PT6. Aplicación experimental de la app																				
T 6.1: Puesta en marcha del proyecto de movilización																				
T 6.2: Seguimiento entradas, explotación periódica y definición de ajustes y mejoras de la app y del sistema de indicadores																				
T 6.2: Sesiones de formación al personal técnico del proyecto																				
PT7. Versión final y plan de difusión																				
T 7.1: Diseño definitivo aplicación y método de explotación y representación de datos																				
T 7.2: Base de datos de Administraciones locales de interés a nivel de CAPV																				

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659f88a5d9



III.- AZTERKETA JURIDIKOA:

2023ko azaroaren 22an, idazkaritzako tekniko juridikoak txostena egin du eta, laburbilduz, honakoa adierazi du:

“Sailaren planteamendua lankidetzeta-hitzarmen bat formalizatzea izan da. Zentzu honetan, azpimarratu behar da hitzarmenaren xedea ezin izango dela izan kontratuen berezko prestazioak.

Hitzarmenak pertsona pribatuarekin ondorengo arautegian daude xedatuta:

-Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoek arautzen dute. Bigarrenengo apartaduko c) parrafoak aurreikusten ditu pertsona pribatuekin formalizatzeari.

-Lege horren 48.3 artikulua arabera hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu beharko du, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea erraztu beharko du, onura publikoko jarduerak egiten lagundu beharko du eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete beharko du.

-Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/2015ko legearen 49.artikuluan dago arautua:

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.

b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketak.

c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.

d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.



e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzearen ondorioztadaitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoari aplikatzekoak. Mekanismo horrekebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Estatuaren Administrazio Orokorra edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzaren Organoa eta Tresnen Estatuaren Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.

50. artikulua honela dio:

"Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelakoizaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

2. Gainera, Estatuaren Administrazio Orokorra edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek sinatzen dituzten hitzarmenari hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Zerbitzu juridikoaren txostena. Ez dago txosten hori zertan eskatu hitzarmena bat badator dagokion zerbitzu juridikoak aurretiaz txostena egin dion eredu normalizatuarekin.

b) Aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen beste edozein txosten nahitaezko.

c) Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren alde aurreko baimena, hitzarmena sinatu, aldatu, luzatu eta alderdien arteko adostasunez suntsiarazteko.

d) Administrazio publikoen artean sinatutako urte anitzeko hitzarmenek barnean hartzen badute Estatuak funtsen ekarpenak egitea beste administrazio publiko batek eskusiboki egin beharreko jarduketak finantzatzeko, eta Estatuak, bere eskumenen barruan, konpromisoak



hartzen baditu hirugarrenen aurrean, Estatuak etorkizunean urteko ordainketak egiteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditua egotea.

e) Autonomia-erkidegoekin sinatutako administrazio arteko hitzarmenei dagokienez, Senatuari bidaliko dizkio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak."

Jurisprudentziak eskatzen du hitzarmenek ordenamendu juridikoa errespetatzea eta administrazio onaren printzipioetara egokitzea, eta agerian uzten du itundutako ekintzaren izaera, alderdien erabaki asketik sortzen dena, loteslea dela haientzat, "pacta sunt servanda" printzipio orokorraren arabera, eta helburu izan behar duela jarduera pribatuak sustatzea, neurri batean ekonomikoak, interes publikoko helburuetarako.

Onartu behar duen organua: Tokiko Gobernu Batzarra Horrela dio 2023/1707 Dekretuak, uztailaren 3koak: "Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari:5.-Lankidetzak Hitzarmenak:Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen eta 38/2003 Lege Orokorra , dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik txosten juridikoak zein teknikoak, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondorengo Hitzarmena onartzea: Mapa interaktiboa herritarren benetako, hautemandako eta sortzen ari diren beharrak ezagutzeko tresna gisa. Hiri birsorkuntza prozesu integratu eta endogenoen kudeaketa eraginkorraren oinarria.

Bere edukia, eranskin gisa eranstean da.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Interesatuari jakinaraztea.

LAUGARRENA.--Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.



ERANSKINA:

PROIEKTUA APLIKATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

“Mapa interaktiboa herritarren benetako, hautemandako eta sortzen ari diren beharrak ezagutzeko tresna gisa. Hiri birsorkuntza prozesu integratu eta endogenoen kudeaketa eraginkorraren oinarria (MI_RIU)”

ELKARTZEN DIRA

ALDE BATETIK, ANDU MARTINEZ DE RITUERTO ARREGI, Tolosako Udaleko – IFK P2007600F – alkate den aldetik, honen izenean eta hau ordezkatzuz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

(aurrerantzean, «Tolosako Udala» edo bestela «Udala»).

BESTE ALDETIK,

Miguel A. Alonso del Val jauna, 16025924F NAN zenbakia duena, AH Asociados Grupo NORTE SLUren izenean eta berau ordezkatzuz (IFK: B95173472), zeinak jakinarazpenetarako helbidea Bilbon duen, Hurtado de Amézaga kalea 20 5CE helbidean (aurrerantzean, “ORG1”).

Claudia Pennese andrea, X7258325P NAN zenbakia duena, RB3 Innovación Integrada S.L.-ren izenean eta ordezkartzan (IFK: B75114298), zeinak jakinarazpenetarako helbidea Donostian duen, Euskadi Plaza 1, 4º Oficina 3 helbidean (aurrerantzean, “ORG2”).

Imanol Esnaola Arbiza jauna, 3405411E NAN zenbakia duena, GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS KOOP ELK-ren izenean eta ordezkartzan (IFK: F75006577) eta KPn jakinarazpenetarako helbidea Andoainen dueña, Gudarien Etorbidea, 29 D1-1 helbidean (aurrerantzean, «ORG3»).

(aurrerantzean, TALDEA)

Bi alderdiek, erakunde bakoitzaren izenean eta ordezkartzan eta egintza hau gauzatzeko gaitasun juridiko nahikoarekin,

ADIERAZTEN DUTE

Tolosako Udalak AH Asociados Arquitectos SLU, RB3 Innovación Urbana Integrada eta GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS KOOP ELK-ak osatutako TALDEAK aurkeztutako ikerketa-proiektuaren berri duela. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2022ko ekitaldirako BAI+D+i deialdiari eta “Mapa interaktiboa herritarren benetako, hautemandako eta sortzen ari diren beharrak ezagutzeko tresna gisa. Hiri birsorkuntza prozesu integratu eta endogenoen kudeaketa eraginkorrerako oinarria” (Proiektua).

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearen 2023ko maiatzaren 9ko



Ebazpenaren bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko abenduaren 12ko Aginduan aurreikusitako laguntzen emakida ebatzi eta argitara eman zela, eta ebazpen horretan eman zitzaiola laguntza Proiektuari. Agindu horren bidez, 2022ko ekitaldirako dirulaguntzak emateko deialdia egin eta oinarri arautzaileak ezarri ziren, Bai+d+i programaren Euskadiko 2030erako «Hiri jasangarriak» aukera-nitxoaren helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

Aipatutako aginduan proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko ezarritako epeen barruan, argi geratzen dela 2023ko urriaren 31ko epean, finantzaketaren xede diren obren %55aren justifikazio tekniko eta ekonomikoa aurkeztu behar dela, eta gainerako lanak, baita amaierako proiektua ere, 2024ko urriaren 31 baino lehen entregatu beharko direla.

TOLOSAKO UDALAK interesgarritzat jotzen duela TALDEAK aurkeztutako proiektu berritzaile eta esperimentalak, eta eragile laguntzaile gisa bat egitea onartzen duela, kontuan hartuta hiri-berroneratzeko prozesu integralak -ingurune errealarekin, objektiboarekin eta hautemandakoarekin bat datozenak- kudeatzeko tresna gisa proiektu honek duen potentziala. Ondorioz, egokitzat jotzen da lankidetzak hori arautuko duen hitzarmen bat ezartzea ("Lankidetzak Hitzarmena"), kontuan hartuta, gainera, Udalak ez duela finantzaketaren ardura hartu beharko, dirulaguntza dagoeneko emanda dagoela eta gauzatzeko eta entregatzeko epeak abian direla.

Ondorioz, Tolosako Udalak eta AH Asociadosek, RB3 Innovación Urbana Integrada eta GISLAN GEOGRAPHIC APPLICATIONS-ek osatutako TALDEAK lankidetzak hitzarmen hau sinatzen dute "Mapa interaktiboa, herritarren benetako beharrak, hautemandakoak eta sortzen ari direnak, ezagutzeko tresna gisa. Hiri-berroneratze integratuko eta endogenoko prozesuak eraginkortasunez kudeatzeko oinarri bat " proiektuaren markoan.

KLAUSULAK

Lehenengoa- Xedea

Proiektuaren helburua da azterketa-kasu zehatz batean opensource soluzio geoteknologiko bat diseinatzea eta esperimentatzea, mapa interaktibo erabilgarri bat egin ahal izateko, ingurune hiritar jakin batean bizi diren pertsonen benetako beharrak, hautemandakoak eta sortzen ari direnak jaso eta trukatzeko.

Behar georreferentziatuak, zeinak, datu objektibagarriekin gurutzatuta, hiriaren irakurketa ezezaguna eskaintzen duten, pertsonak beren bizitoki-espazioak nola bizi eta pairatzen dituzten ulertzeko aukera ematen dutenak, haien artean nola eta noiz mugitzen diren, zer arrazoi eta inplikazio sozioemozionalengatik mugitzen diren, beren beharrak erregistratzera iristeko, batez ere mugikortasunari, segurtasunaren pertzepzioari eta azpiegitura berdeei dagokienez.

Esperimentazio-prozesu hori eraginkorra izan dadin eta emaitzak baliagarriak izan daitezen, beharrezkoa da benetako aplikazio-ingurunearen hurbileko ezagutza eta erreferentziatzeko gizarte-sarearen inplikazioa izatea. Egoera horretan, toki-administrazioaren lankidetzak aktiboa estrategikoa da.

1. ERANSKINEAN, estatistika-analisiaren eta herritarren elkarreraginaren bidez erregistratu nahi diren datuak deskribatzen dira. Era berean, datu objektibagarrien iturriak eta hedatzeko teknikak zehazten dira, datu interaktiboak dagokienez.



Bigarrena- Elementu berritzaileak

Proiektuak Konponbide Teknologiko eta Metodologiko baten erabilera errazten dio TOLOSAKO Udalari, herritarrek hiri-berroneratze prozesuen inguruan dituzten benetako beharrak, hautemandakoak eta sortzen ari direnak ezagutzeko.

Proposamenak osagai berritzaile handia du, hainbat mailatan:

Alde batetik, administrazio publikoaren, sektore pribatuaren eta tokiko komunitatearen arteko lankidetzarako esparru esperimental bat proposatzen duelako, hari protagonismoa emanaz hiri berroneratzeko proiektuei aurre egiteko orduan, eta, horretarako, GIS ingurune bat erabiliz, datu objektiboak eta pertzepzio-datuak gurutzatzeko gai dena, online mapa dinamiko erabilgarri bat edukitzeko, biztanleriaren eta haren bizitegi-ingurunearen egoera, beharrak eta kezkek denbora errealean jaso eta bistaratzeko.

Ildo horretan, ingurune esperimental bat sortuko da hiri-berroneratze integraleko esku-hartzeak planifikatzeko eta erabakiak hartzeko, eraikuntza-birgaitzea osatzeko, eta auzoek bertan bizi diren pertsonen eguneroko bizitzaren kalitatea nabarmen hobetu dezaten, ingurumen-inpaktua murriztuz.

Bestalde, proiektua garatuz, adierazle kuantitatiboan eta kualitatiboan sistema bat sortuko da, mugikortasunarekin eta azpiegitura berdearekin lotutako gaiak aldi berean bilduko dituen (biak ala biak ikuspegi zirkularrean oinarrituta), eta horiek bildu, aztertu eta ustiatzeko metodologia bat.

Era berean, proiektua interesgarria da Udalarentzat, honek aurretiaz udalerrian identifikatuta eta Hirigintza Arloan jasota dauden premiei ere erantzuten dielako.

Hirugarrena- Proiektuaz arduratuko den taldea

Proiektua gauzatzearaz arduratzen den TALDEA diziplina anitzekoa da, eta parte hartzen duten erakundeetako kideek osatzen dute, AH Asociados (ORG1) buru dutela, eta RB3 Innovación Urbana (ORG2) eta Gislán Geographic Applications (ORG3) laguntzaile direla.

ORG1 Bizkaiko Merkataritza Erregistroan alta emanda dago 4.117 liburukian, 136 folioan, BI-32.607 orrian.

ORG2 Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan alta emanda dago 2662 liburukian, 110 folioan, SS-36777 orrian.

ORG3 irabazi-asmorik gabeko kooperatiba da, eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen printzipio eta xedapenei eta lege horren ondorengo aldaketei lotuta dago. Kooperatiba Euskadiko Kooperatiben Erregistroan alta emanda dago, eta Kooperatiba Elkartearen eta Bestelako Enpresa Elkartearen Inskripzio Liburuaren 2.689. orrialdean dago, 20170026 zenbakiarekin.

Laugarrena- Taldearen betebeharrak

Lankidetzeta-hitzarmen honen esparruan, LANTALDEAK honako betebeharrak hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659fd8a5d9



- a) Zuzendaritza teknikoaz eta proiektuko parte-hartzaileen arteko koordinazioaz arduratzea.
- b) Erabiltzaileek zerbitzua berdintasunez erabil dezaten sustatzea, betiere duintasunerako eta intimitaterako duten eskubidea zainduz eta datuak babesteko indarrean dagoen legeriaren arabera tratatzeko duten betebeharra betez.c) Tolosako Udalari aldez aurreko baimena eskatzea hitzarmen hau sinatzeko.
- d) Administrazioari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea proiektuaren irismenean edozein aldaketa edo aldaketa.
- e) Administrazioarekin elkarlanean aritzea une oro ikuskapen, fiskalizazio eta auditoretza lanetan. Hau da, hitzarmena nola gauzatu den baloratzeko behar den informazio guztia ematea, eta, bereziki, gai ekonomiko, fiskal, laboral, tekniko, asistentzial eta bestelakoei buruzkoa, datuen babesari buruzko legeriaren eta gainerako araudi aplikagarriaren arabera.
- f) Kexa- eta erreklamazio-sistema bat erabiltzaileen eskura jartzea. Sistema hori TOLOSAKO Udalaren eskura ere egongo da, TALDEAK emandako edukia, izapideak eta erantzunak ezagut ditzan.
- g) Langileen ordainsariak ordaintzea eta zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan dituzten betebeharrak zuzenean betetzea, TOLOSAKO Udalak sinatutako hitzarmenaren bilakaeraren baldintzapean jarri gabe.
- h) GISLANek Konponbide Teknologikoa behar bezala kudeatzen eta mantentzen duela ziurtatzea proiektua garatzen den bitartean, eta TOLOSAKO Udalari laguntzea erakundeen jabetzako Soluzio Teknologikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko behar diren gaitetan.
- i) Udalarekin jarraipen-bilerak egitea.
- j) Egindako lanaren emaitza partzialak eta azken emaitzak zein aurrerapenei buruzko informazio guztia ematea Udalari.
- k) Udalak, balorazio tekniko-zientifikoa egin ondoren, hiri-eraldaketarako politikak behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen adierazleak sartzea.
- l) Weberako, sare sozialetarako, tokiko komunikazio-kanaletarako eta tartean diren gizarte-eragileetarako beharrezkoa den informazio guztia ematea, funtsezko informatzaile gisa.

Bosgarrena- Tolosako Udalaren betebeharrak

Lankidetzeta-hitzarmen honen esparruan, TOLOSAKO Udalak ere parte-hartze aktiboa izango du, proiektuaren izaera publikoa den heinean. Beraz, TOLOSAKO Udalak ere hainbat zeregin eta betebeharrak izango ditu PROIEKTUA garatzeko:

- a) Hitzarmenean eragin nabarmena izan dezakeen edozein egoeraren berri modu frogagarrian ematea TALDEari, hitzarmena aldatu, berritu edo deusestaraztea eragiten badu, eta egoera hori indarrean sartu baino 2 hilabete lehenago jakinaraztea Taldeari.
- b) Esperimentazio-eremua definitzea, proiektuaz arduratzen den TALDEarekin lankidetzan eta proiektuaren ikuspegiarekin bat etorritz.
- c) Adierazle objektibagarrien sistema batera berrikusi ondoren eskatzen diren datu



kartografikoak eta estatistikoak ematea.

d) Erreferentziazko ekosistema sozialaren eta tokiko komunikazio-kanalen datuak eta kontaktuak ematea. Egoki iritziz gero, aldez aurreko kontaktuak egitea.

e) Bere web orrian eta sare sozialetan informazio-kanal bat irekitzea APP-aren publizitatea egiteko eta TALDEAK aldizka emandako informazioa hedatzeko.

f) Proiektua garatu bitartean Udalak egokitzat jotzen duen zabalkunde-ekintza orotan laguntzea.

g) Jarraipen-bilerak egitea proiektuaz arduratzen den TALDEAekin.

h) Emaitzak lankidetzeta-hitzarmen honetan adierazitakoez bestelako helburuetarako ez erabiltzea.

i) Emaitzak lankidetzeta-hitzarmen honen, indarrean dagoen legearen, moralaren, ohitura onen, fede onaren eta ezarritako ordena publikoaren eskakizunen arabera erabiltzeko konpromisoa hartzea, hori bermatzeko behar den arreta jarriz.

Tolosako Udalak ez du inolako lan-harremanik edo erantzukizunik izango proiektua garatuko duten langileen inguruan, eta, beraz, ez du inolako betebeharririk izango.

Seigarrena- sinatzaileei informazioa ematea

TALDEAK bere gain hartuko du Soluzio Teknologikoa garatzearen, instalatzearen eta erabiltzearen kostua hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

TOLOSAKO Udalak hitzarmen hau izenpetzeak ez du ekarriko hitzarmenean ezarritako konpromisoak baino gehiago hartzea.

Zazpigarrena- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea

TALDEA osatzen duen erakunde bakoitzak berariazko baimena ematen dio TOLOSAKO Udalari hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko informazioa eskatzeko.

Zortzigarrena- Datu pertsonalak egiaztatzea eta babestea, administrazio elektronikoa eta informazioaren segurtasuna

Hitzarmen hau betetzeko eta planteatzen den proiektua garatzeko, ez da datu edo informazio pertsonalik erabili beharko.

Bederatzigarrena- Jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak

Lankidetzeta-hitzarmen hau lizentzia ez-esklusibo gisa egituratzen da, ez da azpilizentziagarria, besterenezina da, eta aldi baterako mugatuta dago, lankidetzeta-hitzarmen honen epera zehazki.

Klausula honen ondorioetarako, "Jabetza Intelektualaren Eskubideak (PI)" izango dira edozein lege aplikagarriren pean jabetza intelektualaren (besteak beste, egile-eskubideak, antzeko eskubideak, sui generis eskubideak edo antzeko beste eskubide batzuk), jabetza industrialaren (besteak beste, patenteak, markak, diseinuak, produktu erdieroaleen topografiak) eta enpresa-sekretuen eskubidetzat hartzen diren eskubide guztiak.

ESKU4994506d-e3af-43b2-9e84-d4659fd8a5d9



ORG1, ORG2 eta ORG3 erakundeak dira soluzio teknologikoaren gaineko PI eskubideen titular eskusiboak, eta Udalak onartzen du, Lankidetza Hitzarmen honen bidez, ez duela inolako PI eskubiderik (ez bestelako eskubiderik) hartzen soluzio teknologikoaren gainean, ez eta horren gainean egin beharreko edozein garapen, egokitzapen edo aldaketaren gainean ere (Udalaren eskaeren ondoriozkoak barne), Lankidetza Hitzarmen honen xede den lizentziaren bidez Erakundeek Udalarari ematen dioten erabilera-eskubideaz haratago. Udalak eskubidea du Irtenbide Teknologikoa Lankidetza Hitzarmen honetan itundutako baldintzetan eta proiektuaren garapenaren esparruan bakarrik erabiltzeko.

Proiektuaz arduratzen den taldea osatzen duten erakundeek une oro gordeko dute soluzio teknologikoaren gaineko Plaren eskubideen titulartasuna, bai eta horiek prestatzeko agiriarena ere, eta, lankidetza-hitzarmen honetan aurreikusitakoa izan ezik, Udalarari ez dio inolako erabilera-baimenik emango Plko eskubideak edo soluzio teknologikoarekin lotutako beste edozein jabetza edo eskubide erabiltzeko.

Lankidetza-hitzarmen honen barruan ez da sartzen soluzio teknologikoarekin zerikusia duten eta proiektuaz arduratzen den taldea osatzen duten erakundeen ezagutzen transmisiorik edo lizentziarik. Alde horretatik, Udalak ez du inolako PI eskubiderik eskuratzen, ezta, oro har, Erakundeen titulartasuneko Irtenbide Teknologikoaren gaineko ustiapen-eskubiderik ere. Udalak ezin izango du zuzenean edo zeharka Erakundeek emandako elementu horien gaineko PI eskubideak ustiatzea dakarten jarduerarik egin, ez eta alderantzizko ingeniariatzako teknikak aldatzea, erabiltzea, deskonpilatzea edo desmihiztatzea, kopiatzea, erreproduzitzea, inola ere ez transmititzea edo, oro har, Erakundeek aldeztu aurretik eta idatziz baimendu ez duten edozein jarduera ere. Nolanahi ere, Udala proiektuaren emaitzen hartzailea izango da, besteak beste, garatu beharreko tresnaren bidez bildutako informazioa, politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan erabiltzeko.

Argibide gisa, klausula honetan xedatutakoak esan nahi du ez dela aplikatuko Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308.1 artikuluan xedatutakoa (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), ezta etorkizunean hura ordeztu dezakeen edozein xedapen ere.

Lankidetza-hitzarmena indarrean dagoen bitartean hirugarren batek konponbide teknologikotik eratorritako eskubideak hausten baditu, erakundeek dagozkien ekintzak gauzatu ahal izango dituzte, jarduera judizial horren gastuak beren gain hartuz. Egoera horretan, Udalak lankidetza eta laguntza emango die erakundeei, beren eskubideak behar bezala defendatzeko.

Lankidetza-hitzarmen hau sinatzeak ez du esan nahi beste alderdiaren markak, izen komertzialak edo beste zeinu bereizgarri batzuk erabiltzeko baimena ematen denik. Beraz, idatziz onartu beharko da, beste alderdiak marka, izen komertzial edo ikur bereizgarri hori erabili nahi duen edozein erabilera egin aurretik.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Udalak beren markak, izen komertzialak eta beste edozein zeinu bereizgarri erabiltzeko eskubidea ematen die Erakundeei, doan, eskubideek irauten duten bitartean, eta mundu osorako, Erakundeek Udala aipatzeko aukera izan dezaten (zeinu bereizgarriak erreproduzitututa ere), aurkezpenetan, prentsa-komunikatuetan eta merkataritza-dokumentazioan soilik, baita beren web-orrian ere.



Hamargarrena- Publizitatea

Proiektuaz arduratzen den TALDEAK konpromisoa hartzen du proiektu honen zabalkunde nahikoa egiteko, tokiko gizarteak, oro har, horren berri izan dezan. Horregatik, erabiltzen diren komunikazio publikoko euskarri guztietan (programak, kartelak, webguneak, euskarri informatikoak, komunikabideetako partaidetzak, etab.). Proiektuaren ardura duen TALDEAK esplizituki jasoko du Tolosako Udalaren lankidetzaren proiektuko ekintzetan.

Era berean, sinatzaileek beren anagrama, marka edo zeinu identifikatzailea Lankidetzaren Hitzarmen honetan jasotako jarduerekin lotutako edozein dokumentazio, argitalpen edo komunikaziotan sartzeko eska dezakete.

Hamaikagarrena- Hitzarmena amaitzeko arrazoiak

Hitzarmen hau azkentzeko arrazoi izango dira:

- a) indarraldia betetzea.
- b) xedea osatzen duten ekintzak betetzea edo suntsiarazteko arrazoia izatea.

Hamabigarrena- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak dira, dagozkien kalte-ordainen jarduketari kalterik egin gabe:

- a) Proiektuaz arduratzen den TALDEA osatzen duten erakundeetako baten edo batzuen nortasun juridikoa iraungitzea edo desagertzea.
- b) Proiektuaz arduratzen den TALDEA osatzen duten erakundeetako bati edo batzuei edozein prozeduratan konkurtsoa edo kaudimengabezia deklaratzeko ematea.
- c) Eska daitezkeen kalitate-estandarrak eta -parametroak ez betetzea, bai eta dagozkion asistentzia-helburuak ere, ez-betetze hori lantaldeari egotz dakiokenean.
- d) Isun irmoa egotea indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez arau-hauste astuna egiteagatik, merkatuko diziplinari, laneratzeari, laneratzeari eta desgaitasuna duten pertsonen eskubide-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari dagokienez, edo gizarte-eremuan arau-hauste oso astuna egiteagatik, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteak barne, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratuan xedatutakoarekin bat etorriz, eta aipatutako dekretuaren 22. artikuluan 2. paragrafoan aurreikusitako arau-hauste astuna egiteagatik.
- e) Proiektuaz arduratzen den TALDEA osatzen duten erakundeek edo TOLOSAKO Udalak hitzarmen honetako baldintzak eta betebeharrak ez betetzea.
- f) TOLOSAKO Udalak ez betetzea sistema informatikoa lankidetzaren hitzarmen honen arabera adostutakoez bestelako helburuetarako erabiltzeko debekua.
- g) TOLOSAKO Udalak ez betetzea sistema informatikoa erabiltzeko debekua, proiektuaz arduratzen den TALDEA osatzen duten erakundeen baimenik, parte-hartzerik edo lankidetzarik gabe.
- h) Proiektuaren ardura duen TALDEA osatzen duten erakundeek hitzarmena aldatzea dakarten jarduerak egitea, TOLOSAKO Udalaren alde aurreko baimenik gabe.
- i) Datu pertsonalak babesteko betebeharrak ez betetzea.



- j) *Proiektuaz arduratzen den TALDEA osatzen duten erakundeek hitzarmena betetzeko eskaintzen dituzten baliabideak ez edukitzea.*
- k) *Hitzarmen honetan adierazitako baldintzetako edozein ez egiaztatzea.*
- l) *Alderdien arteko adostasuna.*
- m) *Alderdietako batek uko egitea, besteari gutxienez hiru hilabete lehenago modu frogagarrian jakinarazita.*

Lankidetzeta-hitzarmen hau ebatzi ondoren, Udalak konpromisoa hartzen du bere ekipo guztiak erabat desinstalatuta daudela egiaztatzeko ziurtagiri bat emateko.

Aurreikusitako jarduerak egin eta/edo aurreikusitako epea bete ondoren ebatziko da lankidetzeta-hitzarmena.

Hamahirugarrena- Araubide juridikoa

Administrazio-izaerako hitzarmena denez, haren interpretazioa eta garapena ordenamendu juridiko administratiboaren arabera arautuko da, 40/2015 Legearen 47-52 artikuluen esparruan, eta alderdiek berariaz gauzatuko dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioa.

Hamalauugarrena- Indarraldia eta luzapena

Hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2024ko urriaren 31n amaituko da. Hitzarmenaren epea amaitu eta luzatzeko beharra badago, interesdunak epea amaitu baino hiru hilabete lehenago bidali beharko dio proposamena beste alderdiari, eta Udalak onartu egin beharko du.

Aurreko guztia irakurrita, eta adostasuna adierazteko, bi alderdiek agiri honen bi ale sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, goian adierazitako tokian eta egunean.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2023/2488 DEKRETUA: 2023/51 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/2488 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

51. zenbaki duena, 70.851,17 eurokoa.

Zerrenda honetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

51. zenbaki duena, 70.851,17 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Zinegotzi delegatua

Estitxu Kortejarena Ugarte

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/2510 DEKRETUA: 2023/52 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/2510 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak



arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

52. zenbaki duena, 2.286,90 eurokoa.

Zerrenda honetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

52. zenbaki duena, 2.286,90 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Zinegotzi delegatua

Estitxu Kortejarena Ugarte

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 9:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0024-2023-11-28 Gobernu batzarra akta/2023-11-28 Gobernu